

Gaur, zoritxarrez, beste behin joan den asteartean Loiun izandako lan-istripu baten ondorioz Urduñako bizilagun bat hil zela salatzeke elkartu gara. Uralitazko teilatua kentzen ari zen, teilatua haustean 9 metroko altueratik lurrera erori zenean.

Amiantoa kentzeko prozesuetan aritzen den Amiantec 3000 izeneko Amurrioko azpikontrata baten bidez egiten zuen bere lana. Heriotzaren arrazoiak argitzeke daude oraindik.

Argi esan nahi dugu: Urduñako bizilagun honen heriotza ez da kasualitatea, eta ez da zenbaki bat besterik. Izan ere hori ikusarazi nahi digute kasu hauetan, istripu hilgarri bat gertatzen den bakoitzean, besterik gabe asumitu dezagun. Argi esan nahi dugu: Heriotza hori saihestu zitekeen babes- eta prebentzio-neurriak benetakoak balira.

Gainera, azken bi egun hauetan Amiantec 3000 enpresan dauden lan-baldintza tamalgarrietako batzuk argitara atera dira. Amiantoarekin tratatzeko ekipamendu egokirik ez izatea (oso material kantzerigenoa da), baldintza horietan lan egin daitezkeen gehieneko orduak gainditzea, zereginak betetzeko behar adinako prestakuntzarik ez jasotzea, higiena- eta deskontaminazio-neurri eskasak, proba mediko egokirik ez izatea, langileei presio eta zigorrak ezartzea, eta abar luze bat. Are gehiago, enpresa honen kontrako salaketa bat jarria zegoen jada duela urte bat baino gehiago lan ikuskaritzan.

Gainera, eskualde honetan aurrekoetan ikusi dugun bezala, enpresa langile migratuek eta arrazializatuek jasaten duten egoera zaurgarriaz baliatu da, esplotazioa sustatzeko. Hau ere ez da kasualitate bat.

Beste behin ere, langile-klaseak ordaintzen ditu ondorioak. Atzera bueltarik ez daukaten ondorioak: enpresa eta instituzioen partetik egondako utzikeria salatu nahi dugu.

8 pertsona hil dira aurten euskal herrian altueratik erorita. Hori da, hain zuzen ere, lan-istripuen arrazoi nagusietako bat. Izan ere, enpresek nahitaez bete behar dituzten segurtasun-neurriak ez dituzte kontrolatzen. Gainera, gertakari hauen aurrean, enpresentzat, Osalanentzat, Lan Ikuskaritzarentzat zein langileen segurtasuna zaintzeaz arduratzen diren gainerako administrazioentzat, segurtasuna bigarren mailan dago oraindik.

Hemendik salatzen eta aldarrikatzen dugu Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea betetzeko dagoela, istripu hilgarri hauek saihestu ahal izateko. Bada ordua, ardura daukaten erakunde eta organismoek benetako apustua egin eta baliabideak jar ditzaten, lan-heriotzen kontadore hau gelditu eta lanean pertsona batek gehiagok ez dezan bere bizia galde.

ASKI DA!! LAN ISTRIPU GEHIAGORIK EZ!!